

HERRIALDEAK GARAPENAREN ARABERA

1. Munduko ekonomia era homogeneo batean banatuta dago?
 - a) Bai. Guztiok dugu gauzak erosteko dirua.
 - b) Ez, % 16ak bakarrik du dirua.
 - c) Ez, herrialdeen artean alde handiak daude.
2. Zer da ongizatea?
 - a) Ekonomian, gizarte edo sistema sozioekonomiko batek gizakiaren beharrak asetzeko ahalmena.
 - b) Gizarte bateko gizakiak zorientsuak izatea.
 - c) Ekonomian, gizarte bateko gizakiaren beharrak adieraztea.
3. Nola neurtzen da ongizatea?
 - a) Elikadura, osasungintza eta hezkuntza ikertuz.
 - b) Familia bakoitzak duen janari kantitatea kontutan hartuz.
 - c) Familia bakoitzak duen etxea, dirua eta kotxea kontutan hartuz.
4. Osatu testu hau taulako hitzekin:

zerbitzuetan	16	alde	73	azpigaratuak	1400
garapen-bidean dauden			azpigaratuetan	1,25	garatuak

Munduan ekonomia- eta gizarte- _____ handiak daude, eta hori dela eta, herrialdeak hiru bloke handitan bildu dira: herrialde _____, _____ herrialdeak eta herrialde _____.

- Herrialde garatuetan munduko biztanleriaren % _____ bizi da, baina planetako aberastasunaren % _____ inguru biltzen dute.
- Herrialde _____, berriz, _____ pertsona eguneko _____ dolarrekin baino gutxiagorekin bizi da.
- Garapen bidean dauden herrialdeek industria indartsua dute, baina _____ urritasunak dituzte azpiegitura _____ eta _____.

5. Munduan zenbat haurrek egiten dute lan?
 - a) 216 miloi haur
 - b) 216 mila haur
 - c) 216 haur

6. Esan E (Egia) edo G (Gezurra) diren esaldi hauek.

- Herrialde garatuetan gizentasuna ia izurritetzat hartzen da.
- Munduan 216 mila haur inguruk egiten dute lan.
- Munduan 850 milioi pertsona goseak bizi dira.
- Herrialde azpigaratuetan 900 dolar hilabeteko dute.
- Munduan 450 milioi haur inguruk gutxiegi pisatzen dute beren adinerako.
- Garapen-bidean dauden herrialdeetan analfabetismo-maila nahiko baxua da.
- Herrialde garatuenak Estatu Batuak, Kanada, Europako herrialde gehienak, Japonia, Australia eta Zeelanda Berria dira, besteak beste.
- Txina eta India garapen bidean dauden herrialdeak dira.
- Herrialde azpigaratuak Afrikan daude.
- Kolonia eta Venezuela herrialde garatuak dira.

7. Taula bete.

Indartsua	Hazten ari da	Herrialde garatuak	Urtean 5000 dolar inguru	Altua
Pobrea	Altua	Urtean 11.000 dolarretik gora	Urtean 900 dolar baino gutxiago	
		Ertaina	Urriak	Oso altua

		Garapen-bidean dauden herrialdeak	Herrialde azpigaratuak
Herrialdeak	Estatu Batuak, Kanada, Europako herrialde gehienak, Japonia, Australia...	Txina eta India, Asiaren hego-ekialdea, Kolonia eta Venezuela, Maroko...	Afrikako herrialde gehienak. Saharatik hegoaldera.
Ekonomia	Hazten ari da.		Pobrea eta mendekoa. 1 sektorean oinarritzen da.
Industria	Indartsua		
Diru-sarrerak biztanleko			
Azpiegiturak	Onak		Urriak
Analfabetismo-maila	Baxua		
Zerbitzuak	Kalitatezkoak	Urriak	
Bizi itxaropena			Urria
Ongizate maila	Altua	Baxua	Oso baxua